

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2013ko 2. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

EAEko ekonomiak %-1,5eko urte arteko tasa jaso zuen 2013ko bigarren hiruhilekoan. Zenbateko horrek lau hamarrenetan hobetu du lehen hiruhilekoko datua eta barne produktu gordinaren beherakada leuntzen ari dela baieztatzen du. Jaitsiera tasa hori Espainiako ekonomiak jasotakoaren antzekoa da (%-1,6), baina oso urrun dago Europar Batasunak lortu duen tasatik (%0,0), azken hau atzeralditik irten delako. Europak izan duen hobekuntza begi bistakoa den arren, kanpo eskariak hiru hamarren bakarrik ekarri dizkio EAEko barne produktu gordinari, hots, aurreko hiruhilekoan baino bat gehiago. Aitzitik, barne eskariak hiru hamarrenetan gutxitu du bere ekarpen negatiboa, 1,8 puntu arte.

Beraz, bigarren hiruhilekoan ezagutu den hobekuntzaren zati handi bat barneko osagaien bilakaera ez hain negatiboaren ondorioa da. Nabarmentzekoa da ekipamendurako ondasunetan eginiko kapital eraketa gordina, oraindik tasa negatibotan (%-1,1) egon arren, bilakaera itxaropentsua eskaini duelako. Aitzitik, inbertsioaren beste osagaiak, eraikuntzari oso lotuta baitago, ez du suspertzeko zantzu askorik erakusten (%-5,3).

Azken kontsumoko gastuak ere urte arteko aldakuntza tasa negatiboak leuntzeko prozesuan lagundu zuen, baina beraren ekarpena nabarmen txikiagoa izan zen. Hala ere, familien kontsumoaren portaera azpimarratu behar da, aurreko epealdietako jaitsierak asko gutxitu zituelako, %-0,9an kokatu arte. Oso bestelakoa da administrazio publikoen kontsumoaren bilakaera, berriro oso tasa negatiboetan murgildu baitzen (%-2,1), urte hasierako datu positiboaren ondoren. Izan ere, aurreko txostenean adierazi genuen jarraipenik izango ez zuen gertakari batek eragin zuela lehen hiruhilekoko emaitza ona.

Kanpo arloak BPGari bigarren hiruhilekoan egin zion ekarpena urte hasierakoa baino hamarren bakar bat handiagoa izan bazen ere, adierazi behar da merkataritzako salerosketek suspertze garrantzitsua izan zutela epealdi horretan eta ekarpena esportazioak eta inportazioak gehitzen ari diren une batean lortu dela. Hain zuzen ere, aurreko hiruhilekoetan ez bezala, bigarren hiruhilekoan ondasunen eta zerbitzuen esportazioak %2,9 areagotu ziren termino errealean, inportazioak %2,3 hazi ziren bitartean. Europako merkatuetan hastapenetan dagoen susperraldia eta garatutako beste herrialdeetan bizi den sendotzea dira esportazioen gorakadaren oinarri nagusiak.

Ekoizpen arlo guztiek urte hasierakoak baino aldakuntza tasa hobeak lortu zituzten, oraindik negatiboak ziren arren. Esate baterako, industriak beste urrats bat eman zuen suspertzeko bide luzean eta urte arteko tasa %-2,7an kokatu zuen, azken urte eta erdiko daturik apalena baita.

Eraikuntzak ere bi hamarren hobetu zuen emaitza (%-6,6), baina oraindik urrun dago bilakaera egonkortzetik, obra publiko gutxi egiten delako eta higiezin salmenta oso apala delako. Azkenik, zerbitzuek %-0,7an gelditu zuten beren jaitsiera tasa, hainbat hiruhilekotan etengabeko moteltzea jaso ondoren. Adar guztiek berriro datu negatiboak izan zuten arren, hobekuntza garbia hauteman da administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldean (%-0,4), baita merkataritza, ostalaritza eta garraioa barnean hartzen dituen ere (%-1,6)

EAEko BPGaren narriadura txikiagoak enplegu galera ere txikiagoa izatea ekarri zuen, urte hasierako %-2,9tik bigarren hiruhilekoko %-2,5era igaro baitzen. Balio horiek oraindik oso negatiboak badira ere, zenbatekoak leundu direla begi bistakoa da. Enpleguaren jaitsiera oso garrantzitsua da oraindik eraikuntzan (%-12,6) eta industrian (%-4,9), baina zerbitzuek hobeto egin diote aurre egoerari (%-0,6). Aurreko guztiaren ondorioz, langabezia tasa %14,5era igo da.

Ekonomiaren ahultasunaren ondorioz, prezioen aldakuntzak oso mugatuak dira. Hain zuzen ere, BPGaren deflatoea %1,1 baino ez da hazi azken urtebetean eta kontsumo pribatuaren deflatoea, berriz, %1,7. KPI indizeak antzeko zenbatekoak (%1,7) jaso zituen bigarren hiruhilekoan, nahiz eta uztailean %2,2an kokatu zen eta abuztuan %1,9an, botiken koordainketak kontsumoko salneurrietan izan zuen eraginarengatik. Horren ondorioz, Espainiarekiko inflazio tarte lau hamarrenetara zabaldu da eta Eurogunearrekikoa, berriz, sei hamarrenetara, baina gertakari iragankor hori hileko batzuk barru desagertuko da. Halaber, energiaren merkatuan ez da epe laburrean inflazioa gorarazi dezakeen tentsiorik hautematen.

2013ko bigarren erdian EAEko ekonomiaren susperraldiak jarraituko duela espero da eta BPGa urteko batez bestean %1,1 murriztuko dela aurreikusten da. Aurreikuspen honen arabera, urte arteko lehen tasa positiboak 2014ko lehen hiruhilekoan lortuko dira eta urte osorako emaitza %0,9 izango da, hots, aurreko aurreikuspenean kalkulatu zena baino hamarren bat gehiago. Oraingo atzeralditik irteteko eskemak iradokitzen du ingurune sendotasunak piztuko duela EAEko ekonomia. Zehazkiago, kanpo arloaren ekarpena puntu erdi baten inguruan kokatuko da aurten eta zazpi hamarrenetara iritsiko da datorren urtean, Europako susperraldia sendotuko den heinean.


Enplegua konpondu gabeko arazoa izango da berriro eta 2013. urtean %2,2 jaitsiko dela aurreikusten da, hots, 20.000 lanpostu inguru galduko dira urteko batez bestean. Datorren urtean, jaitsiera %0,5era apalduko da batez beste eta azken hiruhilekoan enplegua egonkortuko da. Langabezia tasak %14aren gainetik jarraituko du aurreikuspen honetan kontuan hartu den epealdi osoan zehar.

EKONOMIAREN INGURUNEA


2013ko bigarren hiruhilekoan, munduko ekonomiaren bilakaerak irudi kontrajarriak eta apalak utzi zituen berriro. Ekonomia aurreratu gehienetan, Eurogunea barne, hobekuntza hauteman zen hazkunde erritmoan, baina haietako askok aldakuntza tasa negatibotan murgilduta jarraitu zuten. Halaber, azaleratzen ari diren ekonomietan gehikuntza tasek indarra galtzen segitu zuten. Aurreko guztiari erantsi behar zaio munduko merkataritza ahul dagoela, beraz susperraldia astiro gauzatuko dela uste da.

Munduko ekonomia. BPG. Urte arteko aldakuntza tasak


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Txina



Iturria: Eurostat, ELGE eta NDF.

Txinako ekonomiak bizitasuna galdu zuen berriro 2013ko bigarren hiruhilekoan. Inbertsioaren bultzada eta kontsumoaren hobekuntza ez ziren nahiko izan esportazioen moteltzea konpentsatzeko, merkataritzako bazkideen nolabaiteko geldotasunak kaltetuta. Beraz, bertako BPGa %7,5 hazi zen urte arteko tasan, urte hasierako lehen hiru hilekoetan baino bi hamarren gutxiago. Bigarren hiruhilekoz jarraian, munduko bigarren ekonomiak bere hazkunde erritmoa makaldu du, 2012ko azken hilekoetan bizi zen geraldariaren ondoren, honezkero sendotzetik urrun ematen duena.

Aitzitik, AEBetako ekonomia jarduerak gora egin zuen berriro. Barne eskariaren sendotasunak, egoitzetan eginiko inbertsioari eta, neurri txikiagoan, kontsumo pribatuaren egonkortasunari esker, BPGa %1,6ra gorarazi zuen bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasan. Japoniak ere barne eskaria osatzen duten agregatuen bilakaera ona nabaritu zuen, kanpo arloak nozitu zuen beherakada konpentsatuz. Herrialde horrek atzean utzi zuen azken hilekoetan bizi zuen beherazko joera. Hain zuzen ere, bertako BPGa %1,3 areagotu zen, 2012ko erdialdetik jaso duen emaitzarik onena baita.

Eurogunea, berriz, hobekuntzarako zantzuak eskaintzen hasi zen, bere egoera ekonomikoa oraindik oso ahula den arren. Zehazkiago adierazita, BPGak puntu erdi bat egin zuen hobera, %-0,5era arte, gastu pribatua eta inbertsioa gutxiago murriztu zirelako eta gastu publikoa, berriz, igo zelako, azken hiru urteko gehikuntza handiena markatuz. Alemaniak eta Frantziak eremuaren susperraldia lideratu zuten, kontsumoaren bilakaera onari esker, bereziki kontsumo pribatuarena, hori izan baitzen ordura arte jardueraren galga nagusietako bat. Hobekuntza orokorra izan zen eta Txiprek, Holandak eta Austriak izan ezik eremuko herrialde guztiek ekonomiaren egoera hobetu zuten. Periferiako herrialdeek ere joera bera erakutsi zuten eta beraien emaitzek hobera egin zuten, nahiz eta bide luzea daukaten oraindik balio positiboak berreskuratu arte. Europar Batasunean, joera are hobeagoa izan zen, zeren eta Frantziako eta Alemaniako susperraldiari Erresuma Batuak erakutsi zuen sendotasuna, %1,5 hazi baitzen, eta kide berrien indarra gehitu behar baitzaizkio. Guztion artean kontinente zaharra zenbaki gorrietatik ateratzea lortu zuten eta Europar Batasuna atzeralditik irten zen.

2013ko bigarren hiruhilekoan, Espainiako ekonomiak nabarmen moteldu zuen beherakada erritmoa. Hain zuzen ere, BPGa %1,6 gutxitu zen, hots, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago. BPGaren jaitsieraren apaltzea batez ere barne eskariaren ekarpen ez hain negatiboaren ondorioa izan zen, hobekuntza garrantzitsua izan baitzuen osagai guztietan. Azpimarratzekoa da ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren bilakaera, hamabost hilekoz jarraian etengabeko beherakadak jaso ondoren tasa positiboak berreskuratu zituelako. Kanpo arloak, berriz, 2,0 puntu ekarri zizkion hazkundeari, aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren gutxiago, inportazioak biziki areagotu zirelako, esportazioak ere portaera ona izan zuten arren.

Eskaintzaren ikuspegitik, nolabaiteko hobekuntza hauteman zen lehen arloan eta zerbitzuetan, narriadura erritmoa moteldu zutelako aurreko hiruhilekoaren aldean. Hala eta guztiz ere, jaitsierek garrantzitsuak izaten jarraitu zuten eta egoera kritikoa da, bereziki industrian eta eraikuntzan.

ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2011	2012	2012			2013	
			II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	-1,0	-3,3	-3,4	-3,3	-3,9	-4,0	-3,0
- Familien gastua	-1,2	-2,8	-3,1	-2,8	-3,6	-4,3	-3,2
- Administrazioaren gastua	-0,5	-4,8	-4,4	-4,9	-5,0	-3,3	-2,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	-5,4	-7,0	-6,9	-7,5	-7,7	-7,5	-6,4
- Aktibo finko materialak	-6,3	-7,8	-7,6	-8,6	-8,3	-8,2	-6,7
- Eraikuntzan	-10,8	-9,7	-9,3	-10,9	-10,0	-10,2	-
- Ekipamendurako ondasunetan	5,3	-3,9	-4,3	-3,8	-4,8	-4,1	0,4
- Aktibo finko inmaterialak	7,8	2,9	2,6	4,8	0,4	-0,1	-2,4
Nazio eskaria (*)	-2,1	-4,1	-4,2	-4,2	-4,7	-4,6	-3,6
Esportazioak	7,6	2,1	0,5	3,3	4,4	3,6	9,2
Inportazioak	-0,1	-5,7	-7,7	-4,6	-3,5	-4,8	3,1
BPG (m.p.)	0,1	-1,6	-1,6	-1,7	-2,1	-2,0	-1,6
Nekazaritza eta arrantza	5,6	-10,9	-12,6	-11,2	-12,7	-6,2	-1,2
Industria	2,7	-0,5	-0,7	0,2	0,4	-3,0	-3,1
Eraikuntza	-9,0	-8,6	-8,6	-8,7	-7,7	-5,8	-5,9
Zerbitzuak	1,4	-0,3	-0,1	-0,4	-1,1	-1,1	-0,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	-6,1	-4,9	-4,7	-4,9	-5,1	-2,6	-1,7
GOGORATZEKOAK							
- Kontsumoko prezioen indizea	3,2	2,4	2,0	2,8	3,1	2,6	1,7
- Enplegua (**)	-2,2	-4,8	-5,1	-4,7	-5,0	-4,5	-3,8

(*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (**) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Bilakaera horrekin bat eginik, lan merkatuak ere nolabaiteko hobekuntza jaso zuen eta enplegu tasa %-3,8an kokatu zuen, urteko lehen hiru hilekoetan jasotakoa baino zazpi hamarren gorago. Sektore guztiek, eraikuntzak izan ezik, jaitsiera erritmoa leundu zuten, baina bilakaera hori bereziki esanguratsua izan zen zerbitzuetan eta lehen arloan, adar haietako batzuetan lanpostuak sortzera ere iritsi zelako. Dena dela, urtebete bateko tartean, lanaldi osoko 623.000 lanpostu galdu ziren. Beste aldetik, inflazioak jarraipena eman zion 2012ko amaieran hasi zuen

beheranzko joerari eta, ekainean zertxobait igo bazen ere, energiako ekoizkinen eta zerbitzuen merkatzeak %1,5era gutxitu zuen abuztuan.

Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak argitaratu dituen datuek erakusten dute Estatuak 40.001 milioi euroko defizita jaso zuela ekaina arte, kontabilitate nazionalako terminoetan. Diru kopuru hori BPGaren %3,81aren baliokidea da. Beraz, aurreko urteko epealdi berekoa baino %8,2 txikiagoa da, orduko hartan BPGaren %4,15era iritsi baitzen.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

Bigarren hiruhilekoan, EAEko barne produktu gordinak %1,5eko jaitsiera pairatu zuen urte arteko tasan. Zenbateko horrek lau hamarrenetan hobetzen du aurreko datua eta atzeraldi honetako datu negatiboenetik (%-2,0) urruntzeko balio du, suspertzeko joera leuna ematen duen bilakaera batean. Sektore guztiek lagundu dute BPGaren beherakada leuntzen, urte arteko aldakuntza tasak aurreko hiruhilekokoak bezain negatiboak izan ez direlako.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2012			2013	
			II	III	IV	I	II
BPG erreala	0,3	-1,6	-1,7	-2,0	-2,0	-1,9	-1,5
Nekazaritza eta arrantza	7,9	8,7	3,2	-2,0	16,3	-5,0	-1,6
Industria eta energia	1,6	-3,7	-4,1	-4,2	-3,8	-3,0	-2,7
- Manufaktura industria	3,0	-3,7	-4,5	-4,4	-4,2	-3,2	-2,5
Eraikuntza	-7,9	-8,2	-8,6	-7,7	-7,1	-6,8	-6,6
Zerbitzuak	0,9	-0,4	-0,1	-0,7	-1,0	-1,0	-0,7
- Merkataritza, ostalaritza, garraioa	-0,6	-1,1	-1,0	-1,3	-1,9	-2,0	-1,6
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,5	0,4	1,4	-0,9	-1,7	-1,7	-0,4
- Gainontzeko zerbitzuak	0,4	-0,3	-0,4	-0,3	-0,2	-0,2	-0,1
Balio erantsi gordina	0,3	-1,7	-1,7	-2,1	-2,0	-1,9	-1,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-0,2	-1,1	-1,1	-1,2	-1,6	-0,9	-0,5

Iturria: Eustat.

Horiek horrela, industriak, bereziki manufakturenak, beste urrats bat eman du norabide zuzenean eta hainbat hamarrenetan gutxitu du bere jaitsiera %-2,7an kokatu arte, oraindik oso maila negatiboa dena, baina azken hiruhilekoetako daturik okerrenak atzean utzita. Argitaratu diren koiunturako adierazleek iradokitzen dute jaitsieraren apaltzeak udako hilekoetara ere luzatu dela. Hain zuzen ere, Eustatek argitaratzen duen industria produkzioaren indizeak urtean zehar leuntze arina gauzatu dela seinalatzen du, iazko amaieran jaso ziren %5etik gorako beherakada erritmoetatik uztailean ezagutu zen %3aren apur bat beheragoko baliora. Bide horretan, kontsumoko eta bitarteko ondasunak dira oztopo nagusia, energiak eta ekipamendurako ondasunek emaitza hobek askaini dituzten bitartean.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2012		2013		
			IV	I	II	Uztaila	Abuztua
Industria							
Industria produkzioaren indizea (*)	4,1	-5,9	-5,9	-3,9	-3,6	-2,9	---
Industria giroaren indizea	-12,3	-23,0	-27,2	-25,7	-21,8	-15,3	-9,7
Ekoiizteko ahalmenaren erabilera (%)	75,1	74,2	77,2	67,9	70,5	---	77,2
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-2,2	-4,5	-5,4	-5,7	-4,9	-4,2	-4,1
Eraikuntza							
Koiunturako indizea	-10,1	-20,1	-19,9	-20,2	---	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak (etxeak)	-13,0	-40,2	-13,1	-21,1	---	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	-19,9	-20,7	-26,2	-17,3	-20,6	-8,9	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-8,6	-12,0	-12,8	-13,9	-13,3	-11,9	-11,6
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko trafikoa	2,5	3,1	-1,3	-6,5	-12,4	-13,1	-10,3
Hoteletan igarotako gaualdiak	5,3	2,8	3,9	4,5	-5,7	-1,5	---
Hoteletako okupazioa	46,0	46,1	39,9	33,1	43,7	57,8	---
Negozio zifren indizea	-0,9	-7,1	-6,4	-7,7	-3,6	-1,0	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	-3,8	-6,3	-7,3	-6,5	-5,4	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,0	-0,8	-1,6	-2,3	-2,2	-2,5	-2,3

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak bildutako iritziek ere ekonomiaren egoerak hobera egin duela iradokitzen dute. Izan ere, industria giroaren indizea 2011ko erdialdetik inoiz izan duen baliorik baikorrenean kokatu zen abuztuan, eskari zorroaren bultzada garrantzitsu bati

esker. Halaber, bukatutako ekoizkinen stocka oso txikia da, beraz eskari horiei erantzuteko ekoizpena areagotu beharko da. Hala ere, etorkizunari buruzko iritziek ez dituzte zalantza guztiak uxatu eta enpresak zuhur agertzen dira.

Eraikuntzak oraindik ezin izan du jaitsiera erritmoa egonkortu eta bi hamarrenetan bakarrik leundu du urte arteko aldakuntza tasa (%-6,6), bere balio erantsia bost urtez jarraian gutxitu duen arren. Izan ere, 2007. urtean lortzen zuen balio erantsiaren bi heren bakarrik eskuratzen du gaur egun. Alde batetik, eraikinen langintzak ez du pabilioi berririk eraikitzeke eskaerarik eta saldu gabeko etxebizitza asko dago oraindik. Beste aldetik, defizit publikoari buruzko akordioak betetzeko beharrak obra publikoa baldintzatzen du.

Zerbitzuek moteltzeko etengabeko joera erakutsia zuten 2011ko erdialdetik, baina aurtengo bigarren hiruhilekoan bilakaera hori galgatzea lortu dute. Beraz, arlo horretako balio erantsia %0,7 murriztu zen, hots, aurreko bi hiruhilekoetan baino hiru hamarren gutxiago. Sektorea osatzen duten hiru adarrek lagundu zuten hobekuntza txiki horretan, nahiz eta laguntzaren tamaina oso ezberdina izan zen. Izan ere, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen osagaiak gehiago apaldu zuten jaitsiera erritmoa, %-1,7ko balio batetik %-0,4 batera. Orobat, merkataritza, ostalaritza eta garraioa barnean hartzen dituenak %-1,6ra eraman zuten balio erantsiaren galera, aurrekoa baino lau hamarren hobe baina. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %-0,1eko urte arteko tasa jaso zuten.

Zerbitzuen arloa, bere osotasunean, estimatzen duten estatistika eragiketa nagusietako bik jaitsiera leuntzen ari dela seinalatzen dute. Zehazkiago adierazita, bai Eustatek egiten duen zerbitzuen koiuntura indizeak bai INEk argitaratzen duen negozio zifraren indizeak balio ez hain negatiboak jaso zituzten bigarren hiruhilekoan. Aitzitik, bai bidaiarien aireko trafikoak bai hoteletan igarotako gaualdiek norabide ezkorra erakutsi dute azken hilekoetan.


BPGa bezala, enpleguak ere jaitsiera erritmoa moteldu zuten bigarren hiruhilekoan eta aldakuntza tasaren norabideak suspertze arin baterantz seinalatzen du. Hain zuzen ere, aurtengo bigarren laurdenean, enpleguaren galera, kontu ekonomikoen terminoetan, %2,5era iritsi zen, urte hasierakoan baino lau hamarren txikiagoa eta oraingo atzeraldiko hiruhileko txarrenekoa (2012ko amaieran) baino zazpi hamarren gutxiagoa. Urte arteko tasa horrek adierazten du azken hamabi hilekoetan 22.000 lanpostu galdu direla. Gizarte Segurantzak eskaini duen informazioa bide beretik doa, afiliazioaren galera biziagoa den arren, profesionalak ez diren zaintzaileentzat zeuden hitzarmen bereziak kendu izanak erregistro horretan izan duen eraginarengatik.

Sektoreka, enpleguaren galera nagusia eraikuntzan gauzatu zen berriro (%-12,6), aurreko hiruhilekoaren aldean ia aldaketarik jaso ez baitu. Eraikuntzak ia erdira murriztu du bere langileen kopurua. Halaber, etorkizunari begira dauden igurikimenak ez dira bat ere onak, zeren eta obra publikoa ez baita areagotuko epe laburrean eta, beste aldetik, ez baita beharrezkoa etxebizitza berri asko eraikitzea.

Industriaren enpleguak hamarren gutxi batzuetan murriztu zuen bere urte arteko jaitsiera erritmoa eta %-4,9an kokatu zen. Tasa hori oso negatiboa da oraindik eta azken urtebetean ia 10.000 lanpostu galdu direla adierazten du. Beraz, 1996. urtean zegoen langile kopuru bertsua dago orain. Hala ere, enpresek industriaren etorkizuneko enpleguaz duten iritziek hoberantz egin dute azken hilekoetan. Beraz, litekeena da zenbateko horiek epe laburrean gehiago moteltzea, industriaren ekoizpena sendotzen den heinean.

Azkenik, zerbitzuek enpleguaren %0,6 galdu zuten bigarren hiruhilekoan, azken bost hiruhilekoetako tasarik txikiena baita. Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek adierazten dute bakarrik higiezinaren jarduerak (%3,7) eta hezkuntza (%1,2) izan zirela gai enplegu garbia sortzeko, zerbitzuetako gainontzeko adarrek langileen kopuruari eusteko zailtasunak dituzten bitartean. Esate baterako, enplegu galera oso garrantzitsua izan da informazioa eta komunikazioak adarrean (%-6,4) eta garraioa eta biltegiatzea delakoan (%-4,3), ez batean ez bestean hobekuntza zantzurik agertzen ez direla. Enplegu kopuru handiena duen adarrak, hots, merkataritzak, %2,7ko jaitsiera jaso zuen azken hilekoetan.

Enpleguaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantza

BPGaren (%-1,5) eta enpleguaren (%-2,5) bilakaerak %1,0an kokatzen du produktibitatearen irabazia. Tasa hori aurreko hiruhilekokoaren antzekoa da eta hurbil dago 1995etik lortu den batez bestetik (%1,1). Beste hiruhileko batez, hazkunde handienak eraikuntzan (%6,9) lortu ziren, sektore horretan enplegu asko galdu zelako. Industriak ere irabazi nabarmena (%2,3) eskuratu zuen, azken hamazortzi urteetan izan duen batez bestea (%1,9) baino zertxobait bakarrik gehiago. Azkenik, zerbitzuek produktibitate apur bat galdu zuten (%-0,1). Horrek esan nahi du ahaleginak egiten ari direla enplegu kopuruari eusteko. Oro har, sektore horrek produktibitate irabazi apalak izaten ditu (%0,6, batez beste, 1995. urtetik), bereziki ostalaritzarekin eta etxeko langileekin lotura duten adarretan.

Barne eta kanpo eskaria

Eskariaren ikuspegi batetik, bigarren hiruhilekoko ezaugarriak azpimarragarriena barne eskariaren bilakaera aurreko epealdietan bezain negatiboa ez izatea izan zen, urte arteko tasa %-1,8an kokatu baitzen, hots, lehen hiruhilekoan jaso zen tasa baino bi hamarren gorago eta urtebete bat lehenago markatu zen minimotik (%-2,9) urrun, bilakaera ona erakutsiz. Barne eskariaren bi osagaiek lagundu dute suspertzeko joera horretan, baina, batez ere, kapital eraketa gordinaren goranzko norabidea nabarmentzen da, hori izan baitzen, hain zuzen ere, atzeraldian gehien narriatu zen osagaia.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2012			2013	
			II	III	IV	I	II
BPG errealak	0,3	-1,6	-1,7	-2,0	-2,0	-1,9	-1,5
Gastua azken kontsumoa	-0,4	-1,2	-1,8	-1,3	-1,4	-1,2	-1,1
- Familien kontsumoa	-0,7	-1,3	-1,8	-1,1	-1,5	-1,7	-0,9
- AA.PP. kontsumoa	0,6	-0,8	-1,7	-2,1	-1,1	0,5	-2,1
Kapital eraketa gordina	-2,3	-6,3	-6,7	-5,6	-5,9	-4,7	-4,0
- Ekipamendu ondasunak	2,9	-5,5	-6,0	-5,2	-5,7	-2,8	-1,1
- Gainontzeko inbertsioa	-4,4	-6,6	-7,0	-5,8	-6,0	-5,5	-5,3
Barne eskaria	-0,9	-2,4	-2,9	-2,3	-2,4	-2,0	-1,8
Esportazioak	0,9	-3,3	3,4	-5,6	-8,1	-6,7	2,9
Inportazioak	-0,9	-4,2	1,1	-5,8	-8,4	-6,6	2,3

Iturria: Eustat.

Zehazkiago adierazita, azken kontsumoan eginiko gastuak %-1,1eko urte arteko balioa jaso zuen, lehen hiruhilekoko emaitza hamarren batean hobetuz. Osagai horren barnean, aurrerapen garbia hauteman da familien kontsumoan, urte hasierako %-1,7tik %-0,9ra igaro baita bigarren hiruhilekoan, testuinguru zail batean, non langabezia tasak berriro egin baitzuen gora eta enplegu galera garrantzitsua izan baitzen, nahiz eta, dagoeneko aipatu denez, aurreko hiruhilekoko baina zertxobait apalagoa izan. Kreditu bat lortzeko baldintzak ere ez ziren errazagoak. Beraz, kontsumo pribatuaren bilakaera familiek ekonomiaz duten iritzi baikorrago bati lotuta dago, zuhurtziazko aurrezkoa gutxitzea ekarri duelarik.

Aitzitik, administrazio publikoen kontsumoak serie historiko osoko baliorik negatiboenetako bat (%-2,1) jaso zuen. Gertakari hori defiziteko helburura egokitzeko arlo publikoa egiten ari den murrizketa sakonen ondorioa da. Bigarren hiruhilekoko emaitza are deigarriagoa da urte hasierako gehikuntzarekin (%0,5) alderatzen bada, aurreko txostenean adierazi zenez, jarraipenik izango ez zuen gertaera batek eraginda izan baitzen.

Kapital eraketa gordinak, berriz, suspertzeko prozesuari jarraipena eman zion eta %-4,0ko urte arteko tasa bat markatu zuen. Zenbateko hori oso negatiboa da oraindik, baina azken zazpi hiruhilekoetako daturik onena da. Halaber, zazpi hamarrenetako hobekuntza dakar aurreko datuarekiko. Agregatu horren suspertzea, oso bereziki, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren bizitasunari esker lortzen ari da, 2012. urte osoan %5etik gorako beherakadak jaso ondoren, orain %-1,1ean kokatu delako. Azken bost urteetatik lautan –salbuespena 2011 izan zen- ekipamendurako inbertsioak behera egin zuen. Horrek iradokitzen du agian EAEko enpresek ekipamenduaren zati bat berritu behar dutela, nolabaiteko zaharkitzapen maila batean badaude.

Koiunturako adierazleek ekipamendurako inbertsioa suspertzen ari dela iradokitzen dute. Esate baterako, ondasun mota horren ekoizpenak bizkortze nabarmena erakutsi du bere bilakaeran, urte hasierako %-10eko balioetatik uztaileko %1,1 positibora. Antzeko bilakaera hautematen da ekipamendurako ondasunen inportazioetan, aldagai horretako urte hasierako datuak azken hilekoetakoak baino askoz ere okerragoak zirelako. Beste alde batetik, ekoizteko ahalmenaren erabilera %80aren inguruko maila batean dago eta maila hori da osagaiaren hazkundearekin lotu ohi da.

Oso bestelakoa da kapital eraketa gordinaren beste osagaiaren bilakaera, eraikuntzan eginiko inbertsioari oso lotuta baitago, egonkortzeko zantzurik apenas erakutsi duelako. Hain zuzen ere, bigarren hiruhilekoan, %-5,3ko tasa jaso zuen, aurreko datua baino pare bat hamarren bakarrik hobeto, beraz denbora luzea beharko du oraindik suspertu ahal izateko. Jarduera publikorik

ezak, saldu gabeko etxebizitzaren kopurua altuak eta pabilio berriak eraikitzeke eskarien faltak eraikuntzan eginiko inbertsioaren etorkizuna baldintzatzen dute.

Europar Batasunak, oro har, atzeraldia gairatu duen arren eta EAEko merkataritza harremanak merkatu nagusiekin suspertu dituen arren, kanpo arloak BPGaren gehikuntzari egin dion ekarpena ia ez da aldatu aurreko hiruhilekoko datuaren aldean. Hain zuzen ere, ekarpen hori hiru hamarrenetakoa izan zen, aurreko epealdikoa baino hamarren bakar bat gehiago. Hala ere, aldaketa kualitatiboa gertatu da ekarpen horretan, zeren eta orain ez da lortu inportazioak gutxitu direlako, esportazioak areagotu direlako baizik.

Izan ere, Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoek esportazioak termino errealetan %2,9 igo zirela kalkulatu dute, hainbat hiruhilekotan jaitsiera biziki jaso eta gero. Inportazioak, berriz, %2,3 hazi ziren. Zenbateko horiek %3,7 eta %2,2 bihurtzen dira, hurrenez hurren, termino nominaletan estimatzen direnean. Beraz, salerosketak prezio apaleko testuinguru batean gauzatu dira.

Aduanek argitaratutako informazioak –bakarrik ondasunen salmentak atzerrian biltzen dituzte– iradokitzen du esportazioen gorakadaren zati handi bat atzerrian saldutakoari esker lortu zela, aurreko urteko epe beraren aldean %9,3 areagotu zirelako, dagoeneko aurreko hilekoetan hauteman zen susperraldia nabarmen bizkortuz. Oso deigarria da herrialde garatuek suspertzeko urrats horietan izan duten protagonismoa, EAEko ekoizkinen erosketa biziki (%10,7) areagotu zutelako, eremu horretatik kanpoko ekonomiek egin zutena (%4,2) baino askoz ere gehiago. AEBek izan dute gehikuntza handiena EAEko esportazioen helburu gisa eta dagoeneko hirugarren merkatu nagusia da gure autonomia erkidegoan ekoizten diren produktuentzat, Frantziaren eta Alemaniaren ondoren. Batez ere, energia ekoizkinak erosten dituzte EAEn. Hala ere, datozen hiruhilekoetan tasa horiek askoz ere txikiagoak izango direla aurreikusten da.

Europako herrialdeen susperraldia ere nabaritu da EAEko produktuen salmentaren bilakaera aztertzen denean, merkatu horietan %3,9 hazi zirelako, hainbat hiruhilekotan tasa negatiboak jaso ondoren. Frantziaren eta Italiaren bultzada azpimarratu behar da. Erresuma Batuak, ordea, BPGaren hazkunde tasa handiena eduki arren, erosketak jaitsi zituen. Alemaniak eutsi zion aurreko emaitzari.

Txinak lehen tokia kendu dio Brasili EAEn erosketa gehien egiten dituzten garapen bidean dauden herrialdeen sailkapenean, baina herrialde hegoamerikarrak tamaina handiko gehikuntza tasa bati (%11,3) eutsi dio. Bai batean bai bestean, gehien saldu direnak material elektrikoa eta

garraiokoa izan dira. Aitzitik, Mexikok %25,8 gutxiago erosi zuen, bereziki garraio materiala, eta hirugarren tokia bete du helburu gisa.

ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2011	2012	2012		2013		
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	20,1	-3,7	-9,7	-6,6	-4,4	9,3	5.609.292
ELGE	27,3	-5,5	-11,8	-14,6	-5,8	10,7	4.377.589
Europar Batasuna	26,3	-9,1	-18,6	-22,2	-9,8	3,9	3.321.013
Frantzia	36,6	-15,9	-9,4	-37,5	-8,5	14,8	944.202
Alemania	25,4	-5,0	-16,4	-10,7	-4,7	0,0	800.925
Erresuma Batua	21,6	12,0	1,8	-8,5	-19,2	-5,3	325.124
Italia	9,5	-20,6	-34,7	-12,4	-8,0	5,7	252.209
AEB	20,1	0,7	24,0	43,9	67,3	30,3	391.809
ELGETik kanpokoak	0,3	2,9	-1,9	24,9	1,1	4,2	1.231.703

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Atzerrira bidalitako esportazioen gehikuntza orokorra izan zen. Arantzel sekzio nagusietatik, elikagaiek (%-18,2) eta zementua eta beirak (%-6,4) bakarrik saldu zuten gutxiago. Beste muturrean, petrolioak eta beraren eratorriek (%81,2) eta material elektrikoak (%13,9) lortu duten bultzada bizia nabarmentzen dira. Esportazio bolumen handiena duten bi taldeek, hots, metalak eta beren manufakturrek (%2,5) eta garraio materialak (%4,9) atzean utzi zituzten aurreko epealdietako jaitzierak eta goranzko norabidea berreskuratu.

Atzerritik ekarritako inportazioek ere gorakada izan zuten bigarren hiruhilekoan (%2,7), baina esportazioen bultzadatik urrun. Kasu horretan, erosketen jatorria gero eta gehiago fokatzen da garatzen ari diren herrialdeetan, inportazio guztietatik heren bat baino gehiago biltzen dutelako eta Eurogunetik datorren ehunekora hurbiltzen ari direlako. Oro har, herrialde garatuek %5,8 gutxiago saldu zuten EAEn. Beherakada handiagoa izan zen AEBetako produktuetan Europar Batasunekoetan baino.

Beste hiruhileko batez, inportazioen bultzada, bereziki, energiako ekoizkinen erosketatik dator, %16,6 hazi baitzen. Orobat, garrantzi handiena duen bigarren taldeak ere, hots, metalak eta beren manufakturrek ere, tamaina handiko gehikuntza ezagutu zuen bigarren hiruhilekoan (%5,9). Errusia izan zen berriro EAEko ekonomiaren hornitzaile nagusia, Alemaniaren aurretik,

nahiz eta herrialde bakoitzetik ekartzen dena oso ezberdina den. Izan ere, Errusiak energiako produktuak saltzen ditu eta Alemaniak, berriz, material elektrikoa eta metalak, batez ere. Energiaren alorrean beste hornitzaile batzuk agertu dira azkenaldi honetan, hala nola Saudi Arabia eta Norvegia.

IMPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2011	2012	2012		2013		
			III	IV	I	II	II
GUZTIRA	12,1	-9,4	-3,9	1,2	3,1	2,7	3.853.896
ELGE	9,8	2,6	8,3	-3,7	-9,8	-5,8	2.441.143
Europar Batasuna	7,7	-6,8	-2,5	-5,1	-7,2	-4,5	1.835.608
Frantzia	12,2	-9,4	-12,7	-13,0	-7,9	1,1	409.743
Alemania	18,3	-2,1	-7,4	-10,5	-5,7	3,9	511.640
Erresuma Batua	-2,8	-28,8	38,1	-12,5	-7,2	15,9	153.272
Italia	1,9	-0,8	3,5	-6,3	-11,9	-12,4	203.992
AEB	67,4	-13,0	-29,2	-51,4	-58,9	-12,6	137.332
ELGetik kanpokoak	15,3	-24,9	-17,9	9,8	28,2	21,6	1.412.753

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Atzerriarekin eginiko merkataritzaren bilakaerak oso emaitza ona utzi du EAEko ekonomian, merkataritza saldoa EAEn oso aldekoa baita eta 1.755 milioi eurora iritsi da, serie historiko osoan aurki daitekeen bigarren handiena. Halaber, energiaren bestelako salerosketak bakarrik hartzen badira kontuan, saldoa 2.525 milioi eurora heltzen da, gaur arte inoiz lortu den diru kopururik handiena baita. Merkataritzaren ifrentzua energiaren mendekotasuna da, atal horretako saldoa atzerriarekin negatiboa baita eta 770 milioi eurokoa, nahiz eta kasu honetan azken urteetako kopuru txikienetako bat den.

Prezioak

Salneurriek apaltzeko joera garbia erakutsi zuten 2013ko bigarren hiruhilekoan, barne eskarian oraindik hautematen den ahultasunaren ondorioz. Izan ere, BPGaren deflatoarea %1,1ean kokatu zen, aurreko balioa baino lau hamarren beherago. Igoerak moteltzeko prozesu horretan osagai guztiek lagundu zuten. Zehazkiago adierazita, kontsumo pribatuaren deflatoarea lehen

hiruhilekoko %2,0tik bigarren hiruhilekoko %1,7ra igaro zen; kapital eraketa gordinaren deflatoarea, berriz, sei hamarren jaitsi zen (%-1,0tik %-1,6ra) eta kontsumo publikoaren balio negatiboak (%-1,1) berreskuratu zituen, aurreko hiruhilekoan, salbuespen gisa, gehikuntza positiboa (%1,7) jaso ondoren, arlo publikoan diharduten langileen aparteko ordainketa aurrerratu zelako.

Kontsumoko prezioek moteltzeko joera erakutsi zuten aurtengo lehen hilekoetan zehar, urte arteko aldakuntza tasa apirilean %1,5ean kokatu arte. Hala ere, beheranzko norabide hori bertan behera geratu zen ondorengo hilekoetan eta KPIa %2,2ra iritsi zen uztailean, nahiz eta hurrengo hilekoan (%1,9) berriro kokatu zen Europako Banku Zentralak ezarri zuen helburuaren (%2,0) azpian. Inflazioaren gorakadaren zati handi bat botiken koordainketaren ezarpenak azaltzen du, botikak biltzen dituen taldearen urte arteko aldakuntza tasa %12,3ra gorarazi zuelako.

Gaur eguneko ezaugarri azpimarragarrienetako bat energia atalean tentsiorik ez egotea da. Izan ere, hondar inflazioa (energia eta elikagai freskoak biltzen dituen) %1,4an kokatu zen abuztuan, indize orokorraren azpian. Horren ondorioz, azpiko inflazioak (%2,0) ia berdindu zuen batez besteko igoera. Energiako salneurrien moteltzea, neurri handi batean, petrolioaren prezioa nazioarteko merkatuetan egonkortu izanaren ondorioa da, upelaren kotizazioa hainbat hilekotan 85 euroko langaren azpian egon delako, azken urtebetean %8,5 merkatu delarik, euroaren balio irabaziarengatik.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2011	2012	2013			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
Inflazio osoa (%100)	3,1	2,3	2,5	1,7	1,9	1,9
Azpiko inflazioa (%82,0)	1,8	1,5	2,1	2,0	2,0	1,6
- Elikagai landuak (%13,7)	3,8	3,3	4,2	3,7	3,0	0,4
- Industria ondasunak (%26,9)	0,7	0,3	0,5	0,7	1,1	0,3
- Zerbitzuak (%41,4)	2,0	1,7	2,5	2,3	2,2	0,9
Hondar inflazioa (%18,0)	9,5	6,1	4,0	0,7	1,4	0,3
- Landu gabeko elikagaiak (%6,8)	1,5	2,7	3,0	4,1	7,6	0,5
- Energia (%11,2)	15,3	8,3	4,6	-1,3	-2,2	-0,2

Iturria: INE.

Botiken koordainketa EAEn martxan jarri izanak Estatuarekiko inflazio tartearen zeinua aldatu du, ordura arte gure autonomia erkidegoaren aldekoa izatetik Estatuko KPIaren (%1,5 abuztuan) lau hamarren gaintetik egotera igaro da. Era berean, Eurogunearrekiko (%1,3) inflazio tartea sei hamarrenetara zabaldu da. Tarte horiek ez dute zer ikusirik lehiakortasuneko oinarriekin. Aitzitik, lehenago aipatu denez, jatorria prezioetan eragin iragankorra izango duen erabaki batean dago eta, hain zuzen ere horregatik, hilabete batzuk igarota inflazio tarte hori ezabatuko da.

Dagoeneko aipatua izan den medikuntza taldeaz gain, urte arteko tasa altuak hauteman dira edari alkoholodunetan eta tabakoan ere (%5,8), azken produktu horren garestitzearengatik, eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edarietan ere (%4,3), janari freskoen prezio igoerarengatik, eguraldi txarraren ondorioz. Beste muturrean, badaude azken urtebetean salneurriak jaitsi dituzten hiru talde, beraien artean komunikazioak (%-3,4) nabarmentzen direlarik.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2012		2013		Abuzt.
			III	IV	I	II	
Indize orokorra	3,1	2,3	2,5	2,8	2,5	1,7	1,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,2	2,7	2,5	3,3	3,2	3,7	4,3
Edari alkoholodunak eta tabakoa	9,8	5,8	8,5	5,6	8,4	4,7	5,8
Jantziak eta oinetakoak	0,3	0,2	0,1	0,5	0,1	0,2	-0,1
Etxebizitza	7,8	5,7	6,6	6,3	4,7	0,4	0,0
Etxeko hornidura	1,5	1,1	1,3	2,5	2,9	3,0	2,2
Medikuntza	-0,6	-0,7	-0,7	3,2	4,6	5,0	12,3
Garraioa	7,7	4,3	4,8	3,5	1,3	0,1	-0,2
Komunikazioak	-0,8	-3,4	-3,8	-2,4	-1,9	-4,1	-3,4
Aisia eta kultura	0,3	1,0	1,3	1,8	2,4	2,4	2,5
Irakaskuntza	1,3	2,8	2,9	3,3	3,2	3,2	3,2
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,7	1,0	0,9	1,3	1,2	1,2	1,5
Besteak	2,7	2,4	2,2	3,6	3,0	2,9	2,3

Iturria: INE.

Industriako prezioen indizeari dagokionez (%-1,0), adierazle horrek jarraipena eman zion moteltzeko joerari azken hilekoetan. Joera hori areagotu zen 2009ko amaieratik jaso dituen urte arteko balio txikiak markatu arte. Neurri handi batean, jaitziera horren atzean energiaren osagaiek, kontsumorako ondasunek eta bitarteko ondasunek urte arteko tasan izan zituzten

beherakadak daude, iazko erdialdetik ez baitituzte balio negatiboak utzi. Ekipamendurako ondasunak, berriz, oso garestitze apala eta egonkorra erakusten ari dira, %2ko mailara iristen ez direnak.

Azkenik, hitzarmen kolektiboei dagokienez, hauen analisiak baieztatzen du soldaten negoziazioa gaur eguneko zailtasunetara egokitzen ari dela eta moteltzeko joera erakusten du. Hain zuzen ere, indarrean dauden hitzarmenek %1,6ko gehikuntza jaso dute batez beste, hots, aurreko urteetan adostutakoa baino nabarmen txikiagoa. Halaber, urtean zehar izenpetutakoak %1,1 baino ez dira gehitu.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	2,7	1,9	3,6	2,7	1,6
- Urtean zehar sinatutakoak	2,8	1,7	3,4	2,0	1,1
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,8	1,7	3,8	2,7	1,4
- Enpresako hitzarmenak	2,6	2,4	3,1	2,6	1,8

(*) 2013ko ekaina arte sinatutako lan hitzarmenak.
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Aurreikuspenak

Consensus Forecast erakundeak irailean munduko ekonomiarentzat argitaratu zituen aurreikuspenek %2,4ko eta %3,1eko hazkunde tasak iragarri zuten, hurrenez hurren, 2013 eta 2014 urteetarako. Nazioarteko testuinguru ekonomikoan, badaude oraindik arrisku eta ziurgabetasun asko, epe laburrean eta ertainean taula makroekonomiko horri kalte egin diezaioketenak. Europako zorraren krisia lasta bat izango da oraindik munduko ekonomiaren hazkunderako, baina ez da arrisku nagusia izango. Kezka nagusia Siriako gerra zibilean eta gatazka horrek ekarriko dituen ondorioetan fokatu da. Iranekin dauden tentsioek ere petrolioaren salneurrian ustekabeko aldaketak ekar ditzakete. Kontuan hartu behar den beste alderdi bat Txinako ekonomiaren moteltzea da eta horrek munduko ekonomian izan ditzakeen ondorioak.

AEBetan, ekonomia %1,5aren inguruan haziko da 2013an eta %2,7ra bizkortuko da 2014an. Aurrekontuetako murrizketen eragin negatiboa garrantzitsua izango da 2013an, baina lasta hori 2014an zehar leunduko da. Hain zuzen ere, 2013an gastu publikoa %3,0aren inguruan gutxituko da 2014an, berriz, egonkortzera joko du. Kontsumo pribatuak aurrera egingo du datozen hiruhilekoetan. Dagoeneko hauteman da kreditua lortzeko nolabaiteko erraztasuna. Halaber, aberastasun efektuak eta konfiantzaren igoerak familien kontsumoa bultzatuko dute. Enpresen inbertsioan, etxegintzaren inbertsioak bultzada bizia ezagutuko duela aurreikusten da, sektorearen susperraldia baieztatuz.

Eurogunearen egoerak hobera egin du azken epealdietan eta etorkizunari buruzko igurikimenak ez dira horren ezkorrak orain. Iritzi orokorra negatiboa da oraindik, baina, Europako diru batasunak ezarri dituen politiken ondorioz, zor subiranoaren krisia berriro agertzeko probabilitatea oso nabarmen murriztu da. Euroguneko ekonomiaren hazkundeaz egin diren azken aurreikuspenek %0,3ko jaitziera espero dute 2013rako. 2014an, berriz, urte arteko hazkunde tasa positiboak espero dira, urteko batez bestean %1,0tik hurbil egongo den gehikuntza tasa bat ekarriko duena.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2012	2013	2014	2012	2013	2014
Munduko ekonomia	2,7	2,4	3,1	3,0	2,7	3,0
AEB	2,8	1,6	2,7	2,1	1,5	1,9
Kanada	1,7	1,7	2,3	1,5	1,1	1,8
Japonia	2,0	1,9	1,7	0,0	0,1	2,2
Eurogunea	-0,6	-0,4	0,9	2,5	1,5	1,5
Europar Batasuna	-0,4	-0,1	1,2	2,4	1,6	1,7
Alemania	0,7	0,5	1,7	2,0	1,6	1,8
Espainia	-1,6	-1,4	0,5	2,4	1,7	1,3
Frantzia	0,0	0,1	0,8	2,0	1,0	1,5
Herbehereak	-1,3	-1,2	0,3	2,5	2,7	1,8
Italia	-2,4	-1,7	0,5	3,0	1,5	1,6
Erresuma Batua	0,2	1,3	2,1	2,8	2,7	2,5
Asia eta Ozeano Barea	4,8	4,6	4,7	2,5	2,5	3,2
Ekialdeko Europa	2,4	2,2	3,1	6,5	5,1	4,9
Amerika Latinoa	2,8	2,7	3,3	6,1	7,5	7,0

Iturria: Consensus Forecast (2013ko iraila).

Espanian, hazkunde aurreikuspena 2013rako %-1,3aren inguruan kokatuta dago. Datorren urtean, berriz, aurreikusten den aldakuntza tasa positiboa izango da eta, analisigileen arabera, %0,5aren (Consensus Forecast) eta %0,9aren (Ceprede) artean egongo da. Hiruhilekoka aztertuta, hazkunde positiboak 2013ko hirugarren hiruhilekotik aurrera espero dira. Ondorengo hiruhilekoetan ere tasa positiboak lortuko dira, baina apalak. Agregatuen joerak iradokitzen du nazio eskariak ekarpen negatibo txikiagoa egingo duela eta kanpo arloak, berriz, ekarpen positiboa. Nazioarteko ingurunearen susperraldiak, batez ere Eurogunearenak, kanpo eskaria biziagotuko du, espainiar produktuen salmenta areagotuz atzerriko merkatuetan. Barne eskariak bere jaitziera leuntzen jarraituko du eta 2014ko bigarren seihilekoan ekingo dio hazteari, nahiz eta hazkunde hori ahula eta txikia izango den. Arlo publikoa ezin izango da lasaitu epe laburrean eta ahalegin garrantzitsuak egingo ditu defizit publikoa murrizteko.

Lan merkatuari buruzko aurreikuspenak zertxobait hobetu dira aurreko hiruhilekoetan argitaratu zirenekin alderatuta. Izan ere, enpleguari dagokionez, Funcasen aditu taldeak osatu dituen batez besteko aurreikuspenak %-3,2an eta %-0,2an kokatu dituzte, hurrenez hurren, 2013ko eta 2014ko tasak. Beste aldetik, langabezia tasa beherantz zuzendu da eta 2013an %26,5ean kokatuko dela espero da, datorren urtean %25,9ra jaitziko delarik.

HIRUHILEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2013ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013		2013	2014				2014
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	-1,1	-0,2	-1,2	0,4	0,8	1,0	1,3	0,9
Kontsumo pribatua	-2,5	-0,5	-2,6	0,0	0,1	0,2	0,3	0,1
Kontsumo publikoa	-2,1	-1,9	-2,5	-1,2	-1,0	-0,5	0,0	-0,7
Kapital finkoaren eraketa	-5,8	-5,1	-6,2	-3,5	-1,3	0,3	1,0	-0,9
- Inbertsioa ekipamenduan	0,7	1,7	-0,4	0,4	-0,5	1,5	2,2	0,9
- Inbertsioa aktibo landutan	-1,8	-1,4	-1,4	-1,3	0,8	3,0	3,1	1,4
- Inbertsioa eraikuntzan	-9,9	-9,3	-10,0	-6,1	-2,0	-0,7	0,2	-2,2
Barne eskaria	-3,0	-1,7	-3,3	-0,8	-0,4	0,2	0,7	-0,1
Esportazioak	4,7	4,1	5,4	4,5	4,6	4,8	5,3	4,8
Inportazioak	-0,8	-0,2	-0,7	0,6	1,5	2,7	3,4	2,1

Iturria: CEPREDE

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren 2013rako eta 2014rako taula makroekonomikoa berritu du. Bi urteetan, goranzko zuzenketa bat egin du, tamaina berekoa: hamarren bat. Beraz, ekonomiak %-1,1eko jaitziera nozituko duela 2013an

espero da, eta 2014an susperraldi txiki baina etengabea hasiko dela aurreikusten da, ordurako tasa positiboak jasota, urteko batez bestean hazkundea %0,9ra iritsiz. Hiruhileko arteko tasa positiboak, hots, atzeralditik irteteko unea, 2013ko hirugarren hiruhilekoan gertatuko dela espero da.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2013ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013		2013	2014				2014
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	-1,0	-0,3	-1,1	0,4	0,8	1,0	1,2	0,9
Azken kontsumoa	-1,1	-0,7	-1,0	-0,1	0,3	0,5	0,8	0,4
Kontsumo pribatua	-0,6	-0,1	-0,8	0,6	1,0	1,2	1,4	1,0
Kontsumo publikoa	-2,9	-2,8	-1,9	-2,2	-2,0	-1,8	-1,5	-1,9
Kapital eraketa gordina	-3,4	-2,2	-3,6	-1,3	-0,7	-0,2	0,3	-0,5
Barne eskariaren ekarpena	-1,6	-1,0	-1,6	-0,4	0,1	0,4	0,7	0,2
Kanpo saldoaren ekarpena	0,7	0,7	0,5	0,7	0,7	0,6	0,6	0,7
Lehen arloa	6,3	10,9	2,6	16,1	3,2	-5,0	-3,5	2,7
Industria eta energia	-1,8	-0,7	-2,0	0,7	1,4	1,7	2,3	1,5
Eraikuntza	-5,8	-4,7	-6,0	-4,0	-3,4	-2,5	-1,5	-2,9
Zerbitzuak	-0,4	0,1	-0,5	0,6	1,0	1,2	1,3	1,0
Balio erantsi gordina	-1,2	-0,5	-1,3	0,3	0,7	1,0	1,2	0,8
ekoizkinen gaineko zergak	-0,1	0,6	-0,2	0,8	1,3	1,4	1,1	1,2
BPGaren deflatoarea	1,3	1,1	1,2	1,2	1,2	1,4	1,5	1,3
Enplegua	-2,0	-1,4	-2,2	-1,0	-0,7	-0,3	0,0	-0,5
Langabezia tasa	14,7	14,5	14,4	14,5	14,3	14,0	13,8	14,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Barne eskariak jaitsiera moteltzeko joerari eutsiko dio eta 2014. urtean zehar beraren susperraldia egiaztatuta geratuko da, BPGaren hazkundeari ekarpen positiboak egingo dizkiolako. Hala ere, ekarpen positibo horrek ahultasuna erakutsiko du aurreikuspen hau egiteko orduan kontuan hartu den epealdiaren azken hiruhilekoetan. Kontsumo pribatua pausoz pauso suspertuko da, kontsumitzaileen konfiantza hobetuko den heinean, finantza aberastasun garbia igoko den, interes tasa apaleko eta inflazio tentsiorik gabeko testuinguru batean. Lan merkatuak biziko duen egoera txarrak familien baikortasuna ilunduko du.

Administrazio publikoen gastuak behera egingo du berriro 2013ko bigarren seihilekoan eta 2014. urtean zehar. Gastu publikoaren murrizketa handia izango da datozen hiruhilekoetan,

kontuak doitzeko helburuarengatik. Enpresen inbertsioak suspertzeko zantzuak erakutsiko ditu oraingo taula makroekonomikoan kontuan hartu diren hiruhilekoetan. Barne eskariaren hazkunde txikiak eta kredituak emateko orduan espero den malgutasun handiagoak agregatu horren gehikuntza neurritsua ahalbidetuko dute. Ekipamenduan eginiko inbertsioa izango da kapital eraketa gordinaren osagairik dinamikoena. Aitzitik, eraikuntzan eginiko inbertsioak lasta garrantzitsua izango da eta agregatu osoaren hazkunde handiago bat eragotziko du.

Kanpo eskariak ekarpen positiboa egingo dio EAEko barne produktu gordinari aurreikuspen honetan kontuan hartu den epealdi osoan zehar. Munduko ekonomiaren hazkundeak bultzada garrantzitsua emango die EAEko esportazioei. Inportazioak, berriz, areagotuko dira barne eskaria suspertuko den heinean.

Eskaintzari dagokionez, sektore guztiek, lehen arloak izan ezik, ekarpen negatiboa egingo diote EAEko balio erantsi gordinaren hazkundeari 2013an zehar. Aurtengo amaieran aurkeztuko duten jaitziera txikia hazkunde leun bihurtuko da 2014ko lehen hiruhilekoetan. Hilabeteak aurrera joango diren heinean, susperraldi hori sendoagoa izango da. Bizitasun neurritsuko joera horren salbuespena eraikuntza izango da, narriadura garrantzitsua erakutsiko baitu aurreikuspen epealdi osoan. Industriak hazteko joera hartuko du barne zein kanpo eskarien hobekuntzari esker. Urteko batez bestean, industriaren aldakuntza tasa %-2,0 izango da 2013an eta %1,5, berriz, datorren urtean. Zerbitzuek ere narriadura leunduko dute eta hazkunde tasa %-0,5ean kokatuko da 2013an eta %1,0an, berriz, 2014an.

Lan merkatuaren aldagaien berrikusketak enpleguaren aldakuntza tasa %-2,2an utzi du 2013. urtean. Lanpostuen galerak aurrera egingo du 2014. urtea amaitu arte. Beste aldetik, langabezia tasa 2013an %14,4ra igoko dela aurreikusten da eta 2014an zertxobait jaitsiko da, urteko batez bestean %14,2an kokatu arte.